

12 / 2019

NAFARROAKO PARTE-HARTZEARI BURUZKO LEGE BERRIA

/ NAFARROAKO PARTE-HARTZEARI BURUZKO LEGE BERRIA

2019ko uztailaren 1ean indarra hartu du **Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko 12/2019 Legeak (62. NAO, 2019/04/01ekoa)**. Funtsezkoa da guztiok haren edukiaren berri izatea, eskubide garrantzitsuez eta eskubide horiek erabiltzeko moduz diharduelako!

Kaier honetan, lege hori ahalik eta laburren eta zehatzen laburbilduko dugu. Dena dela, hemen aurkezten dizugun testuak, laburpena izanik, ez du berez balio juridikorik eta ezin da inoiz izan Legearen testuaren ordezkoa.

Xehetasunak edo artikulua batzuen testu osoa hobeto ezagutu nahi badituzu, Legea eskuragarri dago, gaztelaniaz, honako esteka honetan:

<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5951385>

Eta Legea errazago kontsultatzeko, testu honetan zehar adieraziko dugu zer artikulua zehatzetan arautzen den gai bakoitza.

/ PARTE-HARTZEA BEHARREZKOA DA GUZTION GAIEN KUDEAKETA HOBETZEKO

Parte-hartzea funtsezkoa da politika publikoak eta horien kalitate demokratikoa hobetzeko, eta laguntzen du erakundeekiko konfiantza sortzen. Herri-tarren parte-hartzeari esker, behar sozialen diagnostiko hobeak egiten dira, eta erabaki hobeak hartzen.

Parte-hartze horrek laguntzen du herritarren beharrak hobeki artatzen, eta komunitateak indartu eta egituratzen; garatzen du pertsonak beren inguru-nearekin duten identifikazioa eta ingurune horretakoak direlako sentimendua; ikasteko aukerak ematen dizkigu, eta lagundu dezake gatazkak prebenitzen. Horrek guztiak demokrazia indartzen du.

Gainera, parte-hartzearen ezarpenak ahalbidetzen du administrazio ireki, lankidetzako eta deliberazio egile baterantz joatea; administrazio hori prestatuago egonen da egungo errealitatearen konplexutasunari aurre egiteko.

PARTE-HARTZEA DA HERRITARREN ESKUBIDEA

Herritarren parte-hartzea eskubide sozial eta demokratikoa da eta, besteak beste, honako printzipio hauen arabera izan behar du:

- | | | |
|-------------------------------------|-----------------------|--|
| ✓ interes kolektiboa | ✓ solidaritatea | ✓ borondatezkotasuna |
| ✓ berdintasun soziala eta generokoa | ✓ gardentasuna | ✓ zaurgarritasun sozialeko egoeran dauden pertsona guztien eskubideen bermea |
| ✓ justizia | ✓ zintzotasuna | |
| ✓ aniztasun kulturala | ✓ eginbehar soziala | |
| ✓ erantzunkidetasuna | ✓ kontuak ematea | |
| ✓ lankidetzaz | ✓ ideien debate askea | |

2. ARTIKULUA

/ PARTE HARTU DEZAKEGU BAKARKA EDO KIDE GAREN ENTITATE ETA ELKARTEEN BIDEZ

Herritarrak parte hartu dezake bere kasa edo honako hauen bidez: kide anitzeko organo espezifikoak (kontseilu sektorialak, adibidez), sindikatuak eta enpresa erakundeak, lanbide elkargoak, irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateak eta herritarren sareak, foroak, plataformak, mugimenduak, etab., betiere erregelamendu batean ezarriko diren baldintzak betetzen baidituzte.

6. ARTIKULUA

/ LEGE HAU APLIKATZEN ZAIO NAFARROAKO GOBERNUARI, BAITA TOKI ENTITATE GUZTIEI ERE¹

Nafarroako administrazio publiko guztiek bermatu behar dute parte hartzeko eskubideak erabili ahalko direla.

Eta, orobat, Legearen arabera...

... clortu beren langileek ezagutu eta erraztu dezaten herritarren parte hartzea.

... saiatu pertsona guztiek berdintasun baldintzetan erabil dezaten herritarren parte hartzeko eskubidea.

^{1/} Deusetan ukatu gabe haien araudi berariazkoa eta erregelamendu organikoak.

- ... genero berdintasuna lortu parte hartzeko prozesuetan.
- ... parte hartzeko kultura bultzatu eta sustatu, hala gizartean nola beren langileen artean.
- ... sustatu parte-hartze prozesuen hedapena eta zabalkundea.
- ... bermatu parte-hartze prozesu ezberdinen barrenean aurkezten den dokumentazioa herritarrek ulertzeko modukoa dela.
- ... parte-hartzearen berri eman gune digital handienetan, honako hauek barne: sare sozialak, webguneak, mugikorrak, berehalako mezularitza edo beste formatu batzuk.
- ... bermatu herritarrek aitortuta dituzten eskubideak Nafarroako bertako hizkuntzak erabiltzeari dagokionez.

7. ARTIKULUA

LEGEAK PARTE HARTZEKO LAU PROZESU MOTA HANDI ARAUTZEN DITU, HAIEN ARTEAN OSO DESBERDINAK DIRENAK

Honako hauek dira Legeak arautzen dituen lau prozesu motak:

- / EZTABAIDA PROZESUAK**
- / AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK**
- / GALDEKETAK**
- / JENDAURREAN JARTZEA**

8. ARTIKULUA

Foru Komunitateko prozesu bakoitzaren deialdia argitaratuko da Nafarroako Gobernuaren parte-hartzearen gune digitalean. Gutxienez ere hilabete lehenago egin beharko da hori, jendaurreko erakusketaren kasuan izan ezik.

12. ARTIKULUA

Parte hartzeko prozesuen emaitzek ez dute ondorio juridiko loteslerik, baina agindu demokratiko eta politikoa dira erakundeendako. Horregatik, administrazio deiegileak ez baditu proposamenak beretzen, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

Nafarroako Gobernuaren onespena behar duten planak, programak edo plangintza publikorako beste edozein elementu prestatu, aldatu eta berrikusi behar denean, nahitaezkoa da, jendaurrean jartzeaz gainera, eztabaida prozesu bat edo kontsulta bat egitea.

13. ETA 14. ARTIKULUAK

/ EZTABAIDA PROZESUAK: IKUSPEGIAK PARTEKATU ETA EZTABAIDATU, IRTENBIDERIK HOBERENAK AURKITZEKO

Legeak eztabaida prozesu deitzen dio debate publiko batean argudioak eta motibazioak aurrez aurre jartzeari, debate hori egiten delarik jakiteko herri-tarrek zer interes, jarrera eta proposamen dituzten Administrazioaren politika, plan, programa edo proiektu baten gainean.

Eztabaida aldian gehieneko iraupena lau hilabetekoa izanen da, kasu konplexuetan izan ezik, azken horietan sei hilabete arte luzatzen ahalko delako.

16. ETA 18. ARTIKULUAK

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK: HERRITARREK PROPOSATZEN DUTENEAN ZERTAN ERABILI BEHAR DEN DIRU PUBLIKOAREN PARTE BAT

Gobernuak herritarren iritzia jasoko du, bai Nafarroako aurrekontu orokorren urteko aurreproiektuari buruz, bai, behin onetsi ondoren, aurrekontuen edukiari buruz.

Era berean, Nafarroako Gobernuako departamentuek herritarren parte-hartze prozesuak hasiko dituzte gastuaren alderdi puntual batzuk lehenesten laguntzeko.

21. ARTIKULUA

Nafarroako Gobernuak, gainera, toki entitateen aurrekontu parte-hartzaileak bultzatzen eta sustatzen lagunduko du informazio, prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzen bidez.

22. ARTIKULUA

/ KONTSULTAK: ZENBAIT BIDE GIZARTEAREN IRITZIA ZEIN DEN JAKITEKO

Administrazio publikoek kontsulta motak desberdinak sustatzen ahalko dituzte:

/ INKESTAK

/ JENDAURREKO ENTZUNALDIA

Politika publiko jakin batekin zerikusia duten pertsona eta entitateei entzuteko abiatzen den ahozko prozedura publikoa da, erabaki bat hartu aurretik egin beharrekoa.

/ KONTSULTA-FOROAK

Politika publiko baten ondorioei buruz hausnartu eta eztabaidatzeko espazioak.

/ HERRITARREN PANELAK

Aldi baterako informazio espazioak, sortzen direnak erantzuteko herritarrek interes publikoko gaiet buruz egindako kontsultei.

/ HERRITARREN EPAIMAHAIK

Administrazioak sortzen dituen taldeak, ekintza, proiektu edo programa jakin baten ondorioak aztertzeko.

/ HERRITARREN KONTSULTAK

Bozketa horietan jendeari eskatzen zaio adierazteko zer iritzi duen gai jakin bati buruz.

HERRITARREN KONTSULTAK: GIZARTEARI DEI EGITEA BOTOA EMAN DEZAN GAI GARRANTZITSU BATZUEN GAINEAN

Parte hartzeko eskubidea duten guztiek eskubide hori gauzatzeko ahalko dute bozketa libre, zuzen eta sekretuaren bidez. Bozketa presentziala edo telematikoa izan daiteke, deialdian zer erabakitzen den.

Kontsultan sartzen diren galderek aukera posible guztiak emanen dituzte beti, eta botoa ematen duten pertsonak horietako bat aukeratzeko ahalko dute, edo bat ere ez.

Herritarren kontsultetan parte hartzeko eskubidea izanekoak 16 urtetik gorakoak, urtebete daramatenek eroldaturik Nafarroan, Foru Komunitate osoko kontsultak direnean, edo kontsulta egiten den lekuan, toki mailakoak direnean.

Adin-muga txikiagoa izan daiteke, haurrak eta haurren eskubideak zuzen-zuzenean ukitzen dituzten gaiei buruzko galdeketetan.

25-27 ARTIKULUAK

Galdeketaren xedeko gaia organo dei-egilearen eskumenekoa izan behar da.

Urtean gehienez ere hiru kontsulta egiten ahalko dira Nafarroa osokoak direnean eta gehienez ere bost, toki mailakoak direnean.

Gai bati buruzko kontsulta egina bada, horri buruzko kontsultarik ezin izanen da egin harik eta bi urte igaro arte.

28. ARTIKULUA

JENDAURREAN JARTZEA: ADMINISTRAZIOEN GARDENTASUNA SEGURTATZEKO BIDEA

Jendaurrean jartzea da parte hartzeko mekanismoa eta honako alderdi hauek bermatzen ditu:

- / Herritarrei informazioa ematea izaera orokorreko plan eta programen proposamenei buruz edo horiek aldatzeko nahiz berrikusteko proposamenei buruz.
- / Proposamen horiei buruzko informazioa ulergarria eta erraz hartzeko modukoa izatea, eta garbi agertzea iruzkinak edo alegazioak non eta nola aurkez daitezkeen.
- / Herritarrek aukera izatea oharrak eta iritziak adierazteko jendaurreko aldi ireki batean, epe hori inoiz ere izanen ez delarik hilabetea baino laburragoa.
- / Herritarrek parte hartzeko prozesuaren emaitzak behar bezala aintzat hartzea.

Gainera, Administrazio Publikoek kontuen berri eman beharko dute: arduratuko dira gizarteak jakin dezan zein den politika publikoen emaitza eta zer eragin duten gizartean.

29. ETA 30. ARTIKULUAK

/ HERRITARREN EKIMENAK: GIZARTETIK SUSTATZEA PARLAMENTUAK EDO ADMINISTRAZIOEK GAI JAKIN BATZUK LANDU DITZATEN

Herritarrek lege proposamenak aurkez ditzakete, Herriaren Legegintza-ekimena arautzen duen martxoaren 25eko 3/1984 Foru Legeak ezartzen dituen baldintzetan; toki entitateek, berriz, erabaki edo jarduketan proposamenak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak ezarritako baldintzetan.

31. ETA 32. ARTIKULUAK

Lege berriak, halaber, ahalbidetzen du herritarrek ekimenak izan ditzaten toki korporazioetako kideak gaitzesteko; ekimen horietarako, hau behar da:

- /** 50.000 biztanletik gorako udalerrietan, erroldaturiko pertsonen %2 eta, gutxienez, 1.500 sinadura.
- /** 2.000 biztanletik 50.000ra bitarteko udalerri eta kontzejuetan, erroldaturiko pertsonen %3 eta, gutxienez, 120 sinadura.
- /** Gainerako udalerrietan eta, halaber, kontzejuetan, erroldaturiko pertsonen %6 eta, gutxienez, 15 sinadura.

35. ARTIKULUA

/ HALABER SUSTATU DAITEZKE HERRITARREN EKIMENAK PARTE HARTZEKO PROZESUAK ABIARAZTEKO

Herritarrek Administrazioari eskatzen ahal diote parte hartzeko prozesu baterako deia egin dezala. Horretarako aski da pertsona talde batek (gutxienez ere hamar lagun, emakumeak eta gizonak modu orekatuan agertzen direla) eskatzea, honako dokumentu hauek aurkeztuz:

- / Idazki bat aipatzen dituen parte-hartze prozesua irekitzeko arrazoiak, prozesu horren xedea eta prozesuaren deialdia egin beharko lukeen organoa.
- / Idazki bat zehazten duena zer prozesu mota proposatzen den eta prozesu hori nola egokitzen zaion kasuari.

Erregistratzen den egunetik aurrera hamabost eguneko epean erantzuten ez bada, ulertuko da onartu dela ekimena tramita dadin eta argitaratuko da parte-hartzeko espazio digitalean, Nafarroako Gobernuarenean eta/edo dagokion toki entitatearenean.

Orduan, sei hilabete epean, jaso beharko da 16 urtetik gorako en -errol daturik urtebete baino gehiago daramatenen- sinadura kopuru gutxieneko bat.

- / Nafarroako Gobernurako, 5.000 sinadura
- / 50.000 biztanletik gorako udalerrietarako: errol daturiko pertsonen %2 eta, gutxienez, 1.500 sinadura.

- / 2.000 biztanletik 50.000ra bitarteko udalerrri eta kontzejuetan: erroldaturiko pertsonen %3 eta, gutxienez, 120 sinadura.
- / Gainerako udalerrietan eta, halaber, kontzejuetan: erroldaturiko pertsonen %6 eta, gutxienez, 15 sinadura.

Horiek lortu ondoren, organo eskudunak parte-hartzeko prozesuaren deialdia egingen du hilabeteko epean.

37-42 ARTIKULUAK

Sinadurak egiaztatutzat joko dira, honako prozedura hauetako bati lotzen bazaizkio:

- / Sinadura digitalak, izapidetzen badira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak baliozkotzen duen erabiltzailearen eta pasahitzaren bidezko sistema bat erabiliz.
- / Sinadura elektronikoa.
- / Sinadurak, paperean eginak erregelamenduz ezarriko den prozedura baten bidez.
- / Sinadurak biltzeko plataforma digitalak, auditaturiko kontroldunak, datuen babesari buruzko Europako araudia betetzen dutenak.

49. ARTIKULUA

/ GOBERNUAREN PARTE-HARTZEKO GUNE DIGITALAK GAIARI BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA JASOKO DU

Gune digital honetan:

- / Zentralizatuko eta katalogatuko dira Nafarroako Gobernuak abiarazitako parte-hartzeko prozesu guztiak.**
- / Argitaratuko da Foru Komunitateko Administrazioan herritarren parte-hartzearen gainean dagoen araudia.**
- / Gida bat argitaratuko da, non agertuko baitira parte-hartzeko prozesuak proposatzeko bete behar diren baldintza eta irizpideak.**
- / Gune bereizi bat egonen da eskatzen duten toki entitateendako, eta/edo web estekak, parte-hartzeari buruz dituzten orrialdeetara joateko.**
- / Gune digital propioak emanen zaizkie herritarrek aurkezten dituzten ekimenei, eta bertan beren proposamena defendatu ahalko dute, zabaldu eta lortutako sinadurak kudeatu.**

43. ETA 44. ARTIKULUAK

/ PARTE HARTZEKO, GIZA BALIABIDEAK BEHAR DIRA:GOBERNU TALDE BAT, PROZESU GUZTIAK KOORDINATZEKO, ETA BERARIAZKO EKIPO BAT DEPARTAMENTU BAKOITZEAN

Nafarroako Gobernuak badu jada herritarren parte-hartzean espezializaturiko unitate bat, Legeak aipatzen dituen egiteko eta ekintza guztien garapena koordinatzeko.

Gainera, departamentu bakoitzak parte-hartzeaz arduratzen den talde bat izanen du, bere eskumenekoak diren gaietarako.

45. ETA 46. ARTIKULUAK

/ SORTU DIRA NAFARROAKO GOBERNUKO PARTE-HARTZAILEEN ERREGISTROA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO NAFARROAKO KONTSEILUA

Nafarroako Gobernuko Parte-hartzaileen Erregistroan daude parte-hartze-ko eskubidea erabil dezaketen pertsona eta entitate sozial guztiak. Erregelamendu batek zehaztuko du Erregistroaren erregimen juridikoa eta funtzionamendua, baina inskribatuta ez egoteak ez du, inoiz, parte hartzeko eskubidea kenduko, baldin eta legitimitatea egiaztatzen bada sinatzen den unean.

47. ARTIKULUA

Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilua herritarren parte-hartzeari lotutako gaietan kontsultak egiteko eta parte hartzeko organo gorena da Nafarroako Foru Komunitatean. Erregelamendu batek zehaztuko ditu haren osaera, antolakuntza eta lan egiteko moldea.

Hauek ditu eginkizun nagusiak:

- / Erakunde espezializatuei aholkuak ematea herritarren parte-hartzearen gaineko politiken diseinuari buruz eta irizpenak edo txostenak egitea parte-hartze demokratikoarekin lotura duten programa, plan edo xedapen arau-emaileei buruz.**

- / Artikulatzea mugimendu asoziatiboak zer lan izanen duen herritarren parte-hartzeari buruzko politika publikoen planifikazioan, egikaritzan, segimenduan eta ebaluazioan.
- / Nafarroan herritarren parte-hartzeak duen egoera orokorra aztertu eta ebaluatzea, eta neurriak proposatzea politika publikoetan herritarren parte-hartzea sustatzeko.

Kontseiluko kideak izan dira honako erakunde hauen ordezkariak: Nafarroako Gobernua, toki entitateak, entitate eta elkarte batzuk, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta lanbide elkargo batzuk.

48. ARTIKULUA

HAURREN ETA GAZTEEN PARTE-HARTZEA: LEGE BERRIAK JASO ETA GARATZEN DUEN ESKUBIDEA

Haurren eta nerabeen parte-hartzerako eskubidea aitortuta dago 1989an Nazio Batuen Batzar Nagusiak onetsitako Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan. Eta lege berriak ere jaso du.

Horri esker sentituko dute paper aktibo bat dutela eta aitortzen zaiela aldakuntzako aktore sozialak direla.

Haurrek eta gazteek parte hartzeko duten eskubidea gauzatzeko, Nafarroako erakundeek honako lan ildo hauek garatuko dituzte, besteak beste:

- / Informazioan eta komunikazioan egokitzapenak egitea, haurren eta gazteen eskubideei eragiten dieten parte-hartzeko ekimenak direnean, haurrek eta gazteek haietan parte hartu ahal dezan.
- / Sustatzea beren langile guztiek behar den prestakuntza izan dezaten.
- / Laguntzea ikastetxeetan parte-hartze prozesuak sustatu daitezen.
- / Haurren eta gazteen Nafarroako Kontseilua sortzea, organo aholku-emaile gisa proposamenak egin ditzan, eta iritzia eman horiei eragiten dieten politikei buruz.
- / Sortzea tokiko kontseiluak edo parte hartzeko egitura egonkorak hurrez eta gazteez osatuak, herrien mailan.
- / Sustatzea parte-hartze birtualeko espazioak, haur eta gazteentzat eskuragarriak direnak, non beren iritzia adierazi, eta iradokizunak nahiz hobetzeko proposamenak egin ahalko dituzten.
- / Sustatzea haur eta gazteek parte hartzeko estrategia eta tresna berrien analisia, eta analisi hori egiteko laguntza ematea.

56. ARTIKULUA

Haur eta gazteek bermatua dute haur eta gazte elkarteak libreki eratzeko eskubidea.

Nafarroako Gobernuak haurren eta nerabeen iritzi-adierazpen librea mesedetuko du, haiek sustatutako hedabideak aldeztuz.

Administrazio publikoek parte-hartze bideak sustatuko dituzte, egokituak eta irisgarriak, haurren eta nerabeen ideien eta iritzien adierazpen librea erraztuko dutenak beren eskolako eta gizarteko bizitza eta herritar bizitza garatzen den esparru desberdinetan.

57. ETA 58. ARTIKULUA

/ SENTSIBILIZAZIOA ETA PRESTAKUNTZA HOBETZEA: EZINBESTEKOA, PARTE-HARTZEAREN KALITATEA HOBETZEKO

Nafarroako Gobernuak sentsibilizazio eta prestakuntzako neurriak abiaraziko ditu gizartea parte-hartzaileagoa izan dadin:

- / Programak, laguntza neurriak, eta prestakuntzako eta sentsibilizazioko ikastaroak.
- / Urteko diru-laguntzak, gizarte entitateen eta herritarren elkarteen jarduera sustatzeko.
- / Aholkuak eta laguntza ematea herritarrek sustatutako parte-hartze prozesuen dinamizazioan.
- / Nafarroako Gobernuaren ikastetxeetako programa eta ekintzak.
- / Lankidetzak hitzarmenak, herritarrek toki entitateetan duten parte-hartzea sustatzeko.

- / Aitortzea administrazio publikoek, entitate sozialek eta enpresek herritarren parte-hartzearen arloan dituzten jardunbide egokiak.
- / Sustatzea kargudun publikoek eta teknikariek parte-hartzearen arloan prestakuntza izatea.

60-62 ARTIKULUAK

LEGEAREN GARAPENA EBALUATU BEHARKO DA LAU URTEAN BEHIN

Lau urtean behin, Nafarroako Gobernuak foru lege honen garapenari buruzko ebaluazio txosten bat eginen du, zeina Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilura igorriko baita eztabaidatu eta txostena egin dezan Nafarroako Parlamentura igorri aurretik.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Argitaratzailea: Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua. Nafarroako Gobernua.

Legearen testua egokitzea, diseinua eta maketazioa: Javier García [todocambia.com]

Inprimaketa: Imprenta Zubillaga

Lege-gordailua: LG NA 316-2020

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



AGENDA
2030